



**Ekonomi eta Enpresa Zientzien fakultatea**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**EKINTZALETASUNA UNIBERTSITATEAN**

Ander Unanua Huarte

ZUZENDARIA

Martin Larraza Quintana

Pamplona-Iruña

1 de Mayo de 2017

## Laburpen exekutiboa

Kontaezinak dira ekintzaletasunaren inguruan dauden ikerketak, baina hau ez da guzti horien arteko beste bat. Ikerketa guzti horiek enpresa sortzeko prozesuan arreta jartzen duten bitartean, gurea, enpresa sortzeko asmoetan oinarritzen da, izan ere, ekintzaletasun asmoak dira ekintzaletasunaren aurre ikusle nagusia.

Zergatik ekintzaletasuna unibertsitatean? Gizartean eragin nabarmena duten ekintzaileak aztertuko ditugulako, eta unibertsitate da hain zuzen ere ekintzaletasun mota horren iturri nagusia.

Ikerketa hau bi atal nagusitan dago banatuta: alde batetik, aztertzen saiatuko gara zein diren ekintzaletasun asmoetan eragina duten aldagai nagusiak, eta bestetik, ikusiko dugu zein den Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek aldagai horien aurrean duten jarrera.

## Executive summary

There are countless studies about entrepreneurship, but this is not one among them. While all those studies focus on the process of creating a company, ours, focuses on the intentions of creating a company, since the intentions to become an entrepreneur are the first symptom of entrepreneurship.

Why entrepreneurship in university? Because we are going to analyze the entrepreneurs that have a significant effect on society, and the university is one of the sources of this type of entrepreneurship.

This study is divided in two parts: on the one hand, we will try to analyze which are the variables that affect the entrepreneurial intention, and on the other hand, we will analyze the determinants of entrepreneurial intentions in a sample of students of the Public University of Navarra.

## Resumen ejecutivo

Son incontables los estudios que hay acerca del emprendimiento, pero este no es uno más. Mientras que todos esos estudios se centran en el proceso de crear una empresa, el nuestro, se centra en las intenciones de crear una empresa, ya que las intenciones de emprendimientos son el primer síntoma de los emprendedores.

Por qué emprendimiento en la universidad? Porque vamos a analizar a los emprendedores que tienen un efecto significativo en la sociedad, y la principal fuente de este tipo de emprendimiento es la universidad.

Este estudio está dividido en dos partes: por un lado, intentaremos analizar cuáles son las variables que afectan a la intención emprendedoras, y por otro lado, veremos cuál es el comportamiento que tienen los estudiantes de la Universidad pública de Navarra ante esas variables.

1.	Sarrera.....	1
2.	Ekintzaletasunarekiko grina pizten duten aldagaiak.....	3
2.1	Aldagai sozioekonomikoak .....	4
2.1.1	Sexua .....	4
2.1.2	Ikasketa maila.....	5
2.1.3	Ikasketa mota.....	6
2.1.4	Familian ekintzaile diren kideak izatea.....	6
2.1.5	Lan esperientzia.....	6
2.1.6	Errenta.....	7
2.1.7	Ekintzaletasuna jorrazteko laguntza programetan parte hartzea.....	8
2.2	Aldagai kognitiboak.....	9
2.2.1	Asmoa aurrera eramatearekiko jarrera .....	9
2.2.2	Portaerarekiko antzemandako kontrola.....	9
2.2.3	Arau subjektiboak .....	9
2.3	Aldagai psikologiakoak .....	10
2.3.1	Lorpen beharra .....	10
2.3.2	Barne kontrola (Locus of control).....	10
2.3.3	Arriskuarekiko joera.....	11
2.3.4	Anbiguotasunarekiko onarpena .....	11
2.3.5	Norbere buruarekiko konfiantza.....	11
2.3.6	Berrikuntza.....	12
2.4	Baloreak .....	12
3.	Metodologia.....	13
4.	Analisi estatistikoak .....	17
4.1	Korrelazioak.....	17
4.2	Erregresio lineala .....	20
4.2.1	Aldagai sozioekonomikoen erregresio lineala.....	21
4.2.2	Aldagai kognitiboen erregresio lineala.....	22
4.2.3	Aldagai guztien erregresio lineala.....	22
5.	Ondorioak.....	23
6.	Bibliografia eta Webgrafia .....	25
6.1	Bibliografia .....	25
6.2	webgrafia.....	27

## 1. SARRERA

Ekintzaletasuna gaur egun asko erabiltzen den termino bat da. Egunkarrietan, sare sozialetan, aldizkaritan edota telebistan entzun ditzakegu ekintzaile diren pertsonen beharra dagoela, baina badakigu zer esan nahi duen ekintzaile izatea? Zerk bihurtzen du pertsona bat ekintzaile? Galdera hauek eta askoz gehiago erantzuten saiatuko gara hurrengo orrialdeetan.

Ekintzaile, lurralde baten ekonomiaren beharrak aurre ikusten eta horiek asetzeko ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituen pertsonari deritzo. Ondasun eta zerbitzuak sortu egin daitezke, edota merkatuan daudenak aprobeixatu eta hauentzat erabilgarritasun berriak asmatu, beraz, beste modu batean esanda, ekintzailea aukerak antzeman eta ustiatzen dituen pertsona da.

Ekintzailetasun jarduera bakoitzaren atzean, hori bultzatzen duen motibazioen bat egoten da. Horrezkero, bi ekintzailetasun nagusi mota bereizten ditugu: beharren araberakoa edo aukeren araberakoa.

Beharren araberako ekintzaletasuna: beharren araberako ekintzaletasuna pertsona ekintzaileen portzentajerik txikiena suposatzen du, Nafarroako GEM 2014-ko txostenak adierazten duen moduan, eta batez ere lanik ez duten edota behar ekonomikoak dituzten pertsonak osatzen dute taldea hau. Etxetik kanpo lana aurkitzeko zailtasunak, bere kabuz negozioa sortzera bultzatzen du jendea. Baina lan bat ahalik eta azkarren izateko nahiak, gauzak lehiakarrean egitera eramaten ditu pertsona hauek eta horrek normalean ez du emaitza onak izatera laguntzen. Aurrekoaren bidean, ideia on bat ez izateak edota arazo ekonomikoek sortutako presioak askotan desbideratu egiten dituzte emaitzak, eta horrek eramaten du arrakasta gutxien duen ekintzailetasun mota izatera.

Aukeren araberako ekintzailetasuna: arrakasta gehien duen ekintzailetasun mota da hau. Ideia baten bitartez, emaitza onak izateko aukerak dituen jarduera bat sortzean datza. Normalean gizartean dauden hutsuneak aurkitu eta horiek ideia berritzaile baten bitartez betetzen saiatzen dira aukeren araberako ekintzaileak. Hemen jarduten duen pertsonak, sormenarekin eta berrikuntzarekin erlazionatuta dauden jarduerak dituzte gustuko. Pertsona hauek, urte asko igaro ditzakete ideia on baten bila, ideia horrek sendotasuna duela iruditzen zaien arte. Gainera haien egoera ekonomikoak huts egitea ahalbidetzen ditu, ez dutelako arrakasta izateko presarik.

Azken talde honen barruan bi azpitalde aurki ditzakegu: ekintzaletasuna bizi-modu duten pertsonak osatzen dutena edota ekintzaletasuna eragin nabarmena sortzeko erabiltzen dutenak.

Hurrengo taulan ikus ditzakegu laburbilduta aipatutako hiru ekintzaile moten ezberdintasun nagusiak:

**1.Taula: Ekintzaletasuna ezaugarrien arabera.**

Ezaugarriak	Beharren araberako ekintzaletasuna	Aukeren araberako ekintzaletasuna	
		Bizi-modu dutenak	Eragin nabarmena sortzen dutenak
Sortzailea	-Diru sarrera baxuak. -Oinarrizko edo erdi mailako hezkuntza. -Ikuspegi onik gabeko jarduera.	-Diru sarrera baxuak edo erdi mailakoak. -Unibertsitateko ikasketak. -Ikuspegi ona baina mugatua.	-Erdi edo goi mailako diru sarrerak. -Unibertsitate edo graduondoko ikasketak. -Oso ikuspegi altua.
Enpresa	-Ez dituzte kontaktu sare egokiak sortzeko gaitasunik. -Sektore tradizionalan jarduten du. -Huts egin edo enpresa txiki bezala mantentzen dira.	-Lehen mailako kontaktu sareetan hartzen dute parte. -Eskualde turistikoetan jarduten dute. -Hazkunde mugatua.	-Kontaktu sare bereziak erabiltzen dituzte. -Garapena eta berrikuntza saritzen den sektoreetan jarduten dute. -Hazkuntza maila: %20-%30.
Ekarpen ekonomiko edo soziala	-Ez du hazkundera eraginik, baina langabeziari aurre egiteko aukera ona.	-Gizartearen ekonomian eta ongizatean izan ohi dute eragina.	-Gizartearen ekonomia eta ongizatea sendotzen dute.

(Diaz de Leon, D. eta Cristian, C. 2014)

Argi geratu da orduan, ekintzaletasuna jorratzen duten pertsonen artean dauden ezberdintasunak nabariak direla. Ikerketa hau eragin nabarmena sortzen duten pertsonen ekintzaletasunean zentratuko dugu. Aurreko taulan esan dugun moduan eragin nabarmena izateko, oinarrizko prestakuntza maila, ikuspegi altua eta ezinbestekoak diren kontaktuak behar dira eta faktore guzti hauek unibertsitatetan aurki ditzazkegu. Unibertsitateak eta unibertsitatetan ematen diren ikasketak eragin handiko ekintzaletasunean izan dezaketen garrantzia kontuan izanda, gure ikerketa unibertsitateko ikasleetan zentratu dugu, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleetan hain zuzen.

Horretarako, NUP-ko maila eta ikasketa ezberdinetako ikasleei egindako inkesta bateko datuak erabiliko ditugu NUP-ko ikasleen ekintzaletasun grina pizten duten faktore edo aldagaiak azaltzeko. Unibertsitateko ekintzaletasunaren behatokia da ekimen honen sortzailea eta CRUE, Red Emprendia eta UCEIF dira ikerketaren sustatzaileak. Bertan, ikasleek ekintzaletasunarekiko duten asmoa, jarrera eta profilari buruzko galderak biltzen dira.

Baina ikerketa eta datuei aurre egin aurretik, ekintzaletasun grina pizten duten aldagaien deskribapen bat egingen dugu bigarren sekzio honetan. Horretarako orain arte argitaratu diren hainbat ikerketa lanetan oinarrituko gara. Ondoren erabiliko diren hainbat aldagaien aurkezpen bat egitea da ariketa honen arrazoa. Hirugarren sekzioan, inkestaren datuak SPSS programan sartuko ditugu eta hainbat analisi estatistikoren laguntzaz hauen azterketa egingo dugu.

Azkenik, analisisien emaitzen ondorioztapena egingo dugu, bigarren sekzioko ikerketetatik ateratako informazioarekin alderatuz.

## **2. EKINTZALETASUNAREKIKO GRINA PIZTEN DUTEN ALDAGAIAK**

Ekintzaletasunari buruzko ikerketak anitzak izan dira historian zehar, baina horietako askok enpresa sortzeko prozesuan jartzen dute fokua, behin erabakia hartuta dagoenean, erabaki hori hartzeko aurretik datorren prozesu subjektibo guztia ahaztuz. Gu ordea, prozesu subjektibo horretan eta hori eragiten duten asmoetan jarriko dugu arreta, bertan parte hartzen duten aldagaien multzoa azalduz. Izan ere, asko dira ekintzaletasuna aurreikusteko asmoen garrantzia azpimarratzen duten ikerketak, gainera ekintzaletasunarekiko asmoa, gakoa da ekintzaletasunaren fenomenoaren ulertzeko eta askotan lehenengo pausoa bezala ulertu ohi da (Sanchez, Lanero eta Yurrebaso 2005). Batzuk planteamendu psikologiko baten bitartez azaltzen saiatzen dira, beste batzuk faktore kognitiboak kontuan hartzekoak

direla azpimarratzen dute, guk ordea ikerketa guzti hauetatik esanguratsuenak diren aldagaiak hartuko ditugu eta Unibertsitate Publikoan duten eragina aztertzen saiatuko gara.

Orduan, ikerketarekin hasteko, aldagai hauek lau talde nagusitan bilduko ditugu: aldagai sozioekonomikoak, aldagai kognitiboak, ezaugarri psikologikoekin lotuta dauden aldagaiak eta balioekin lotutako aldagaiak.

Uste da baita ere kultur ingurumena kontuan izateko faktoreetako bat dela, edota lurralde bakoitzak ekintzaletasunaren aldeko baldintzak izatea. Ikerketa honetan, ordea, lurralde mailako beste faktore hauei ez diogu arreta handirik jarriko, gure lana Nafarroako Unibertsitate Publikoara mugatuta dagoelako eta beraz, ingurune orokor hori guztientzat berdina izango delako.

## **2.1 ALDAGAI SOZIOEKONOMIKOAK**

Maila sozioekonomikoa, aldagai batzuen bitartez pertsona bat jerarkia sozial baten barruan sailkatzean datza. Aldagai hauek ekonomikoak, soziologikoak, hezkuntza aldagaiak edota enpleguarekin erlazionaturiko aldagaiak izan daitezke. Hiru maila sozioekonomiko ezberdinak daitezke: altua, ertaina eta baxua. Baina kasu honetan ez dugu horrelako sailkapenik egingo, baizik eta aldagai bakoitza modu indibidualean ekintzailetasun asmoan duten eragina aztertuko dugu.

Kontutan izango ditugun ezaugarriak hurrengo hauek izango dira: sexua, ikasketa mota, ikasketa maila, familiaren errenta, familian kide ekintzaileak izatea, esperientzia eta ekintzaletasuna jorrazteko laguntza programetan parte hartzea.

### **2.1.1 Sexua**


Sexuari dagokionez, ekintzaletasuna ezberdina da emakumezkoetan eta gizonezkoetan. Emakumezkoek joera gutxiago izan ohi dute ekintzaile izateko, eta hala azaltzen du Nafarroako GEM 2014 txostenak. Hurrengo hiru urtetan enpresa bat sortzea eskuartean duten pertsonen artean, %40 dira emakumezkoak eta %60 gizonezkoak. Gertakizun honen jatorria oso zaharra da. Historian zehar emakumeen eta gizonen papera gizartean oso ezberdina izan da. Familiako gizonak etxetik kanpo lan egiten zuen bitartean, emakumea etxean geratzen zen, etxeko egin beharrak egiten eta semeak zaintzen (Quevedo eta Izar 2010). Gertakizun hau aldatzetik urrun, Valentziako unibertsitatean egindako ikerketa baten arabera (Arribas eta Bila 2004) gizonezkoen %44.4ak du enpresa bat sortzeko asmoa, emakumezkoen %30.9 baten aurrean.

### 2.1.2 Ikasketa maila

Unibertsitateko formakuntza ez da urte bateko gauza. Gaur egun, lau urtekoak formakuntza ematen da karrera gehienetan, eta lehenengo urtetik azken urtera bitartean emandako ezagutzak ikaslearen hezkuntza maila hobetzea dute helburu.

Gure helburua ordea, hezkuntza maila modu orokorrean aztertzetik urrun, ekintzaletasun asmoa karrerako urteak igaro ahala aztertzea da. Horretarako, Cadizko unibertsitatean egindako ikerketa bat erabiliz aztertuko dugu nola aldatzen den ekintzaile izateko asmoa urteak aurrera joan heinean.

#### *1.Irudia: Ekintzaile izateko asmoa urteen arabera*



(Ramos eta Navarro, 2015)

Aldez aurretik espero dezakegu ekintzaile izateko asmoa altuagoa izatea azken kurtsuetan lehenengo kurtsuetan baino. Ordea, aurreko taulan lortutako emaitzek ez dute gauza bera adierazten, izan ere, oso nabaria ez den gora behera bat ikus daiteke. Beharbada azpimarra dezakegu ekintzaile izatea gutxiengo aukera bat dela ikasleen artean. Baina ikerketak adierazten du emaitza hauek ez direla estatistikoki esanguratsuak (Ramos eta Navarro, 2015).

Bestalde, ikasle berdinei galdetzen zaienean zein izango den bere asmoa karrera amaitu eta bost urte beranduago, emaitzak nabarmen aldatzen dira. Lehenengo urteko ikasleen %36.9-ak du ekintzaile izateko asmoa, azken urteko %29.8-aren aurka. Gainera emaitza hauek estatistikoki esanguratsuak dira. Ramos eta Navarro-ren arabera baliteke ikasleak formakuntza maila altuago bat duten heinean, lanpostu egonkor bat eta ongi ordaindutakoa lortzeko aukerak handitzen zaizkiela.



### **2.1.3 Ikasketa mota**

Unibertsitateko karrera bakoitzean ematen diren ezagutzak ez dira berdinak eta ez daude berdin bideratuak. Beraz, baliteke, karrera ezberdinetako ikasleek ekintzaletasunarekiko duten asmoa ezberdina izatea. Hori baieztatzen duten ikerketa ugari ezagutzen dira (S. Wu eta L. Wu, 2008) eta baita esaten dutenak ingeniaritza ikasleak izan ohi dutela ekintzaletasun asmorik altuena (Hassan eta Wafa, 2012)

Aurreko puntuari erabilitako inkesta berdina kontuan hartuz (Ramos eta Navarro, 2015), ikus dezagun zein den Cadizko unibertsitateko karrera ezberdinetako ikasleek ekintzaletasunarekiko dituzten asmoak karrera amaitzeko momentuan eta karrera amaitu eta bost urte beranduago. Inkestaren emaitzek erakusten dute ez dagoela ezberdintasunik ekintzaletasun asmoetan ikasketak amaitu bezain pronto (%4 eta %7,5 artean aurkitzen dira karrera guztiak). Baina ikasketak amaitu eta bost urte beranduago, Ingeniaritza eta Arkitektura dira ekintzaile izateko asmo altuena duten karrerak (%35.6) eta oso hurbiletik jarraitzen diete Gizarte eta Zuzenbide Zientziak (%34.2) eta Arte eta Humanitateak (%32.3). Berriz ere Osasun Zientziak dira portzentajerik baxuena azaltzen dutenak (%20.7)

### **2.1.4 Familiar ekintzaile diren kideak izatea**

Ekintzaletasun asmoetan eragin dezakeen beste aldagaietako bat, familiar edo lagun artean ekintzaile den kideren bat izatea da. Zentzuduna da esatea, ekintzaile izateko asmo handiagoa izango dutela, familiar edota lagun artean, jarraitzeko eredu bat daukaten ikasleek (Bolaños 2006). Modu honetan, ekintzaletasun mundua zertxobait ezagutzen joaten dira eta horrek ekintzaile izateko grina pizten dut kasu batzuetan.

Adibide bezala erabili dezagun Espainia mailan Sanchez Almagrok egandako ikerketa (2003). Bertan konparaketa bat egiten zen langile autonomoen eta funtzionarioen artean, eta emaitzetan ikus zitekeen autonomoen gurasoen %30 ekintzaileak zirela, funtzionarioen %19-aren kontra.

### **2.1.5 Lan esperientzia**

Hurrengo taulatik ondoriozta dezakegu lan esperientzia izateak lotura nabarmena duela ekintzaletasun asmoekin. Taulak adierazten du zein den ikasleen lan esperientzia (esperientziarik ez izatea, autonomia, menpeko lan esperientzia, lan esperientzia informala edo beste motako lan esperientzia) daukaten ekintzaletasun mailaren arabera (baxua, normala edo altua). Banaka aztertuz gero, ikus daiteke nola ekintzaletasun maila baxua duten ikasleen %40-ak lan esperientzia izan dutela beste motako lan arloetan, ekintzaletasun maila normala duten ikasleen %77,8-ak lan esperientzia informala izan duela

eta ekintzailetasun maila altua izan duten ikasleen %41.7-ak, ordea, autonomo bezala haritu da lanean.

Beraz, ikus dezakegu, nola autonomo moduan esperientzia izateak ekintzailetasun asmo altuarekin lotzen dela, izan ere, autonomoa den pertsona batek lantzen dituen ezaugarriak lotura zuzena dute ekintzailetasunarekin. Ordea, lan esperientzia dutenak, baina esperientzia hori beste lan arloekin erlazionaturik dagoenean, argi geratzen da ez duela ekintzailetasun asmoak garatzeko balio.

**2. Taula: Las esperientzia ekintzailetasun mailaren arabera.**

Lan esperientzia	Baxua (N=52)	Ertaina (N=100)	Altua (N=50)	N=202
Ez dut izan	35,1	47,9	17	100
Autonomoa	12,5	45,8	41,7	100
Menpeko	22	53,7	24,3	100
Informala	0	77,8	22,2	100
Beste batzuk	40	40	20	100
Guztira	25,7	49,5	24,8	100

(Loli, Dextre, Del Carpio, eta La Jara 2010 - itzulua)

**2.1.6 Errenta**

Aldagai honen analisisa egiteko, kontuan izan dezagun errentaz hitz egiten dugunean, ikaslearen familiak duen errentaz hitz egiten hari garelara, hau da, zein den ikasle horrek bere familian duen maila ekonomikoa.

Arreta deitzen du errenta baxua eta errenta altua duten ikasleak izatea ekintzailetasunarekiko joera baxuena dutenak. Nafarroako 2014-ko GEM txostenaren taulak adierazten digu 20.000 eta 40.000 euroko errenta tartean dauden ikasleak daukatela ekintzaile izateko joera handiena.

Hala ere, hau baieztatzen duten ikerketa sakonik ez da aurkitzen, baina interesgarria izango da ikustea zein izango den NUP-ko ikasleen jarrera errentaren arabera.

## **2. IRUDIA: Ekintzaletasunen errenta urteko maila Nafarroan fase ezberdinetan.**

Nivel de renta	Tipo de emprendedor		
	Potencial	TEA	Consolidado
≤ 10.000€	11,10%	20,00%	5,30%
10.001-20.000€	22,20%	23,30%	17,50%
20.001-30.000€	27,80%	13,30%	38,60%
30.001-40.000€	22,20%	33,30%	14,00%
40.001-60.000€	11,10%	3,30%	17,50%
60.001-100.000€	3,00%	6,70%	3,50%
>100.000€	2,80%	0,00%	3,50%

GEM Nafarroa 2014

### **2.1.7 Ekintzaletasuna jorrazeko laguntza programetan parte hartzea**

Ekintzaletasunarekin loturik dauden taldeak eta programak badira, eta hainbat ikerketek baieztatzen dute talde edota programa horietan parte hartzeak ekintzaile izateko asmoak sustatzen dituela (Von Graevenitz, Harhoff, eta Weber 2010). Haei esker, ikasleak errealitatearekin antzekotasun handia duten eredu simulatuak erabiltzen dituzte, eta ekintzaletasunarekin loturik dauden bizipenak izatera eramaten ditu (Azanza eta Campos 2014). Beraz programa hauetan parte hartzea eta ekintzaletasunarekiko grinaren arteko erlazio positiboa espero dezakegu.

Baina ez da oso ohikoa horrelako formakuntza programetan parte hartzea. Nafarroako GEM 2014-an ikus dezakegu nola Nafarroako ekintzaile potentzialen %61.4-ak ez duten inoiz formakuntza zehatzik jaso, hau da, hurrengo 3 urteetan ekintzaile izateko asmoa duten pertsonen %61.4-ak. Ordea, proiektua ekintzailean barneratzen doazen bitartean, formakuntza tasa handituz doa, %69-9-ko formakuntzara iritsi arte, merkatuan gutxienez 42 hilabete daramaten ekintzaileetan.

## **3. IRUDIA: Ekintzaileek jasotako prestakuntza espezifikoa fase ezberdinetan.**

Formación	Tipo de emprendedor		
	Potencial	TEA	Consolidado
No contesta	0%	0%	0%
No tiene formación	38,6%	56,4%	69,9%
Tiene formación	61,4%	43,6%	30,1%

GEM Nafarroa 2014

## 2.2 ALDAGAI KOGNITIBOAK

Ikerlan osoan zehar azpimarratu dugu asmoen garrantzia ekintzaile bihurtzeko prozesuan, baina ez dezagun nahastu asmoa izatea jarrera izatearekin. Asmoa izateak ez du esan nahi pertsona bat ekintzaile izango denik, izan ere, pertsona batek ekintzaile izateko asmoa izan dezake baina azkenean faktore ezberdinek desbideratu dezakete asmo hori.

Azjen-en arabera, asmoak dira planifikatutako portaeren aurre ikusle nagusiak eta ekintzailetasuna planifikatutako portaera bat da. Hau azaltzeko, teoria bat proposatzen du eta hori da aztertuko duguna, izan ere bera da aldagai kognitiboen aitzindaria (Azjen 1991). Teoria honek ekintzailetasun asmoa azaltzen du 3 aldagairen bitartez: asmoa aurrera eramatearekiko jarrera, portaerarekiko antzemandako kontrola eta arau subjektiboak.

### 2.2.1 Asmoa aurrera eramatearekiko jarrera

Lehenengo aldagaiak, hitz egiten du, pertsona batek zerbaitekiko duen balorapen positibo ala negatiboari buruz. Balorapen positibo bat izateak lagunduko du enpresa bat sortzeko asmoa handiagoa izatera.

### 2.2.2 Portaerarekiko antzemandako kontrola

Bigarren aldagaiak, antzemandako kontrolak, adierazten du ekintzaile izan nahi duen pertsonak portaera aurrera eramateko duen erraztasunaren edo zailtasunaren pertzepzioa. Beraz, zailtasunak izango dituelakoaren pertzepzioa izateak ez du ekintzailetasun asmoak bultzatuko, ordea, erraztasun pertzepzioa izateak, bai (Azjen 1991). Azjen-en kontzeptu hau, beste ikerketa batzuetan antzemandako auto-eraginkortasun izenarekin ezagutzen da baita ere (Sanchez Garcia, J.C. 2010; Moriano y demas 2012) eta Bandura dugu bere aitzindari (2001) Banduraren auto-eraginkortasuna definitzen du norbaitek zerbaite egiteko berengan duen gaitasunen sinesmena bezala. Sinesmen hau positiboa bada, asmoa sendotu egingo da.

Duran-Aponte eta Arias-Gomez kontzeptu hau ekintzailetasunarekin erlazionatzen dute, eta pertsonak enpresa bat sortzeko eta antolatzeko dituzten gaitasunen sinesmenean oinarritzen da (2013).

### 2.2.3 Arau subjektiboak

Azkenik, arau subjektiboak, egin behar duzun ekintzaren inguruan, ingurugiro sozialak duen onarpena edo gaitzespena neurtzen du. Onarpena badago errazago da ekintzaile izateko grina azaltzea. Ingurugiro honen parte izango dira ekintzaile izateko asmoa duen pertsonaren familiarrak edo lagunak.

## 2.3 ALDAGAI PSIKOLOGIAKOAK

Aldagai hauek, aldagai sozioekonomikoak ez bezala, bakoitzaren ezaugarri pertsonaletan jartzen dute arreta. Beraz, suposatzen da ekintzaileek ba dituztela ezaugarri, jarrera eta balore bereziak beste ekintzaileetatik bereizten dituztenak eta hauek ezaugarrien eredua izenez ezagutzen dira (Mueller eta Thomas 2000).

Eredu honen aldeko adostasuna oso zabala da, ordea, eredu horretan erabiliko diren ezaugarri edo aldagaien adostasuna ez dago batere argia. Hemen erabiliko ditugun aldagaiak 6 izango dira: lorpen beharra, barne kontrola, arriskuarekiko joera, anbiguotasunarekiko onarpena, norbere buruarekiko konfiantza eta berrikuntza (Gürol Nuray 2006). Azken autore honen arabera ezaugarri hauek jendearen ekintzaletasun portaera aurreikusteko gai dira

### 2.3.1 Lorpen beharra

Lorpen beharra da, pertsonen beren helburuak aurrera eramatera eta horietan arrakasta izatera bultzatzen dien oro (Sagie eta Elizur 1999). Lorpen beharra duten pertsonak, normalean, arazoak eta helburuak beren kabuz konpondu eta eramaten dituzte aurrera, eta berritzaileak izan ohi dira beren errendimendua hobetzeko tekniketari (Gürol Nuray 2006). Beraz, aldagai hau garatua duten pertsonak ekintzaile izateko asmo handiagoa izaten dute, aparteko energiak dituztelako (Espiritu 2011)

### 2.3.2 Barne kontrola (Locus of control)

Pertsona batek bere bizi helmugaren iturriari buruz duen pertzepzioari deritzo. Batzuk uste dute bere helmugaren jabeak direla, beste batzuk ordea uste dute bere helmuga zortearen edo aukeren ondorioa dela (Robbins 1999). Roberto Espiritu-k bi motako pertsonak bereizten ditu (2011): alde batetik, barne kontrola duten pertsonak, uste dutela helmuga beren ahaleginen ondorio bat dela eta beste aldetik, kanpo kontrola duten pertsonak, uste dutela beren bizitzako gertaerak zerikusia dutela beren eskutatik kanpo dauden gertaerekin, hau da kasualitateko gertaerekin. Beraz, barne kontrola lotura zuzena du norberak dituela uste dituen gaitasun eta esfortzuekin.

Badira baita ezaugarri hau unibertsitateko ikasleen ekintzaletasun testuinguruan aztertu dituzten autoreak. Autore hauen ustetan, ekintzaletasun asmoak dituen ikasle batek ezinbestekoa du barne kontrola izatea, izan ere, onak lagunduko dio aukera berriak bilatzen, ekimen berritzaileak izaten edota beren jardueren jaun eta jabe izaten (Gürol Nuray 2006).

Bide beretik doa barne kontrolari buruz egindako beste ikerketa bat (korunka eta besteak 2003), zeinetan 1.169-ko lagin batetik ondorioztatzen zen ekintzaile gehienek barne kontrolaren ezaugarria zutela.

### **2.3.3 Arriskuarekiko joera**

Edozein jarduera ekonomiko aurrera eramateko gutxieneko arrisku bati aurre egitea suposatzen du, izan ere, inbertsioa ekonomikoa, lehengaien ustiatzea eta beste zenbait oinarritzko gauzen beharra dago, eta horiei aurre egiteak arriskua suposatzen du. Ekintzaile baten eta funtzionario baten arteko ezberdintasun nagusia, lehengoak duen arriskuarekiko joera da. Ezin da ekintzaile izan arriskuari beldurra dion pertsona bat, bere bizitzan zehar askotan egongo delakoz gutxieneko arriskua duen egoeretan (Nuray 2006).

Ondoriozta dezakegu orduan, arriskuarekiko joerak ekintzaletasun asmoak sendotzen dituela, ziurgabetasun egoerei edota egoera arriskutsuei aurre egiteko ematen duen gaitasunari esker.

### **2.3.4 Anbiguotasunarekiko onarpena**

Anbiguotasunarekiko onarpenak esan nahi du ez dugula zergatik guztia kontrolpean izan behar, hau da, galdarei edota zalantzei ematen diogun erantzunak ez dute zergatik perfektuak izan behar. Demagun pertsona batek erabaki bat hartzen duela, baina jakitun dela bere erabakia ez dela guztiz benetakoak diren datuetan oinarritzen. Pertsona horrek bere erabakian konfiantza baldin badauka, esan dezakegu anbiguotasunarekiko onarpenez jokatzeko delako dela (Teoh eta Foo 1997). Bestalde, anbiguotasunarekiko onarpenez jokatzeko dutenak, ez dira gustura sentitzen horrelako erabakietan eta saihesten saiatzen dira.

Ekintzaileak edota enpresarioak, askotan aurkitzen dira horrelako egoeretan. Merkatua oso gorabeheratsua da eta hartzen dituzten erabaki asko emaitza ezezagunak erakarriko dituzte (Gürol Nuray 2006). Horrezkero, asmo ekintzaileak dituzten pertsonak anbiguotasunarekiko onarpena izaten dute.

### **2.3.5 Norbere buruarekiko konfiantza**

Ekintzaletasun asmoekin loturiko beste ezaugarri bat konfiantza izatea da. Ez dago guztiz argi kontzeptu honek ekintzaletasun asmoa eragiten duen edota ekintzaile izatearen ondorioa bat den. Bigarren ideia honen bultzatzailea da Kromie, konfiantza urteen poderioz hartzen den ezaugarri bat bezala deskribatuz.

Ordea, baliteke auto konfiantza jaiotzaz izandako ezaugarri bat izatea, izan ere, txikitatik ikus daiteke guztiok ez daukagula gauzak egiteko orduan konfiantza edo segurtasuna bera. Horrela izatekotan, ekintzaile izateko asmoa eragiten duen ezaugarri liteke. Edozein

modutan, hori baieztatzeko ikerketa ezak, interesgarria egingo du NUP-ko ikasleek ematen duten erantzunak aztertzea.

Aipatzekoa da kontzeptu honek Banduraren auto-eraginkortasun kontzeptuarekin duen lotura. Biak ildo beretik doaz eta beraz pentsa dezakegu norbere buruarekiko konfiantza altua izateak ekintzaletasun asmoa sendotuko duela.

### **2.3.6 Berrikuntza**

Berrikuntza oso lotuta dago enpresa jarduerekin. Etengabe egiten dira berrikuntzak: produktuetan, enpresa antolakuntzan, produkzio sistemetan, merkatuari erantzuteko moduan, etb. (Schumpeter 1934). Schumpeterren ustez, aberastasuna sortzen da aldaketa bat gertatzen denean eta aldaketa hau posible da ekintzaletasunaren bitartez. Orduan, esan dezakegu, berrikuntza garrantzizko ezaugarri bihurtzen dela ekintzaletasunaren inguruan hitz egiten dugunean.

Baina Schumpeter ez da hori esaten duen bakarra. Bide beretik doaz beste ikerketa batzuk, berrikuntza aldaketak lortzeko tresna bezala ulertuz (Entrialgo, Fernandez eta Vazquez 2000)(Gürol Nuray 2006).

## **2.4 BALOREAK**


Baloreak pertsonen jardueren helburu bezala ulertu daitezke, hau da, zerbait egiten duzunean kontuan izaten dituzun printzipioak dira.

10 balore mota ezberdin bereiz daitezke, hiru talde nagusitan biltzen direnak: indibidualistak, kolektibistak eta mistoak (Schwartz 1990).

Indibidualista terminoarekin erreferentzia egiten diogu independentzia emozionala adierazten duten baloreei. Bestalde, parte sentitzen zaren talde batekiko menpekotasun emozionala, kolektibismo terminoarekin lotuta dago. Ordea, bi talde horien artean aurkitzen diren gainontzeko baloreak, talde mistoan sartzen direnak, indibidualismoaren eta kolektibismoaren ezaugarriak izango dituzte (Morales eta besteak 1996).

Schwartz-ek proposatzen du 10 balore hauek biltzen dituen egitura zirkular bat. Eskuin aldeko bostak, balore indibidualistak lirateke: boterea, lorpena, hedonismoa, estimulazioa eta auto-norabidea. Ezkerraldean, balore kolektibistak aurkitu ditzazkegu, adostasuna, tradizioa eta borondate, hain zuzen, eta egituraren goialdean eta behealdean, balore mistoak, segurtasuna eta unibertsaltasuna.

#### 4. IRUDIA: Balore sistemaren motibazio egitura.



(Schwartz,1990)

Baloreei zentzua emateko, ikus ditzagun ekintzaletasunarekin lotu egiten dituzten ikerketak. Nahiz eta horrelako ikerlanak oso ugariak ez izan, erlazioa nabaria antzematen da balore indibidualisten eta ekintzailetasunaren artean.

Esaterako, Thailandian egindako ikerketa batean, ezberdintasunak aurkitu ziren ekintzaletasunaren eta beste lanpostuetako jendearen artean (Moriano eta besteak 2006). Zehatzago izanda, nabarmendu ziren baloreak indibidualismoa, independentzia eta agintaritzarekiko erresistentzia izan ziren, ordea, balore kolektibistak erlazio negatiboa erakusten zuten ekintzaletasunarekiko.

Beste ikerketa batean (Moriano eta besteak 2001) ikus daiteke nola balore indibidualistak, hedonismoa esaterako, ekintzaletasunarekin loturik dauden

### 3. METODOLOGIA

Jada, badakigu zein diren ekintzaletasun asmoetan eragiten duten aldagai nagusiak. Orain NUP-ko ikasleen lagin bat erabiliko dugu lehen identifikatutako aldagaiek ekintzaile izateko



asmoa nola aldatzen duten ikasteko. Hau da, aurrez aipatu ditugun erlazioak gure unibertsitatean baieztatzen diren ala ez ikusteko.

Horretarako erabiliko dugun inkesta Unibertsitate Ekintzaletasun Behatokiak bultzatutako proiektu sendoago batetik dator. Proiektu honen helburua Espainiako unibertsitate ikasleen ekintzaletasun asmoa, profila eta jarrera aztertzea da eta beraz, inkesta Espainia mailako unibertsitate ezberdinetan erabiltzeko prestatuta dago. Ordea, guk bakarrik NUP-ko datuak ditugu esku artean eta esan bezala, NUP-ko laginean oinarrituko dugu gure ikerketa. Lagina 312 ikaslek osatzen dute, eta bakoitzari errazten zaion inkesta 15 minututan egiteko prestatu dago.

Inkesta 5 bloke ezberdinetan banatzen da:

- Lehengo blokearen helburua, ikasle bakoitzaren ekintzaletasun asmoak, jarrerak eta portaerarekiko kontrola aztertzean data.
- Bigarren blokean ordea, ikaslearen ingurugiroa aztertzen da. Alda batetik familia ingurugiroa, bestetik unibertsitate ingurugiroa eta azkenik eskualde ingurugiroa.
- Hirugarren blokean, ikasleek ekintzaletasunaren inguruan duten prestakuntzaz galdetzen da.
- Laugarren blokeak biltzen ditu bakoitzaren lan esperientzia eta beren datu pertsonalak.
- Azkenik, bosgarren blokearen helburua, inkestan parte hartu duten ikasleak saritzea da eta aldi berean aprobeztatzen da beste ikerketa bat egiteko boluntariorik dagoen galdetzeko.

Esan dezakegu lagina ausazkoa eta adierazgarria dela, izan ere, proiektuaren sustatzaileek egindako hainbat analisi estatistikek hori aztertzen eta baieztatzen dute.

Sar gaituz orain inkestarekin: ikasleen ekintzaletasun asmoa izango da mendeko aldagaia, eta beraz aldagai horrek beste aldagaien aurrean (aldagai independenteak) duen jarrera aztertuko dugu.

Ekintzaletasun asmoa, hau da, **menpeko aldagaia**, ez da galdera bakar baten emaitza, baizik eta ikasleek zazpi baieztapenen inguruan duten iritzien batz bestekoaren emaitza. Zazpi baieztapen hauek 7 mailako likert eskala batean biltzen dira eta bakoitzarekiko adostasuna edo adostasun eza adierazi behar dute parte hartzaileek.

Orain, azter dezagun batz besteko indize honen balioa. Horretarako bi froga egin ditugu, alde batetik analisi faktoriala, eta bestetik, Crombach Alpha froga:

1. Menpeko aldagaiaren analisi faktorialak adierazten du faktore bakar batek azaltzen dituela jatorrizko datuen bariantzaren %76-a. Horrezkero, egokia da baieztapen guztiak faktore bakar batean biltzea. Gainera faktore honek jatorrizko datuekiko duen korrelaziorik baxuena 0.686-koa da, balore nahiko altua, gure ideia are gehiago bultzatzeko.
2. Crombach Alpha frogaren bitartez indizeak barne sendotasuna edota fidagarritasuna duela aztertzen dugu. Aldagaiak fidagarritasuna izateko, Alfa de Cronbach koefizientea 1-etik ahalik eta hurbilen egon behar du, 0.7-tik gora dauden baloreak ontzat hartuz.

**4.TAULA: Alpha de Crombach baloreak**

	Alpha de Cronbach	N
Ekintzaletasun asmoak	,936	6

Aurreko taulan ikus dezakegu nola aldagaiaren Cronbach balioa 0.9-tik gorakoa dela. Beraz, ondoriozta dezakegu indizearen aldagaien barne sendotasuna eta fidagarritasuna oso altua dela.

Orain ikusiko dugu **aldagai independente** bakoitzari dagokion galdera mota eta SPSS programan erantzun bakoitzak jasotako balioa.

1. Aldagai demografikoak
  - 1.1 Sexua: galdera itxia, aukera bakarrekia eta dikotomikoa, non 0 balioak gizonaekiko adierazten duen eta 1 balioak emakumezkoak.
  - 1.2 Ikasketa mota: galdera itxia, aukera bakarrekia eta multikotomikoa. 5 ikasketen artean bat aukeratu behar zuten, baina SPSS-an emaitzak aztertu ahal izateko eta ondorio egokiak atera ahal izateko, bi taldetan laburbildu ditugu emaitzak. 0 balioak gizarte zientziak ikasten dutenei dagokie eta 1 balioak zientziak ikasten dutenei.
  - 1.3 Ikasketa maila: ikasleek matrikulatuta dauden kurtzorik altuena aukeratu behar zuten. Ikerketaren diseinua zela eta, bi aukera zeuden: bigarren maila edo laugarren maila. Informazio honekin aldagai dikotomiko bat sortu dugu non 0 zenbakia laugarren mailari egokitu diogun eta 1 bigarren mailari.
  - 1.4 Familiar ekintzaile diren kideak izatea: galdera itxia, aukera bakarrekia eta multikotomikoa. Familiar kide ekintzailerik ez dituzten pertsonak 0 balioak biltzen ditu, gurasoetako bat ekintzaile dituztenak, 1 balioak, eta gurasoak ekintzaile dituztenak, 2 balioak biltzen ditu.

- 1.5 Lan esperientzia: galdera itxia, aukera bakarrekia eta dikotomikoa, non 0 balioak lan esperientziarik ez izatea adierazten duen eta 1 balioak lan esperientzia izatea.
- 1.6 Errenta: izeneko eskala duen galdera itxia. Ikasleak adierazi behar dute 5 mailako eskala batean zein den daukaten maila sozioekonomikoa. 1 balioak maila baxuarekin lotzen dira, 2 balioak maila erdi baxuarekin, 3 balioak erdi mailarekin, 4 balioak maila erdi altuarekin eta 5 balioak maila altuarekin. Hautaz aparte, galderak beste bi emaitza posible dituzte, 6 balioak bere maila sozioekonomiko zein de ez dakitenentzat eta 7 balioa bere maila zein den esan nahi ez dutenentzat.
- 1.7 Ekintzaletasuna jorrazteko laguntza programetan parte hartzea: galdera itxia, aukera bakarrekia eta dikotomikoa. Laguntza programetan parte hartu ez dutenak 0 balioarekin biltzen dira eta 1 balioarekin laguntza programetan parte hartu dutenak.

## 2. Aldagai kognitiboak

Aldagai kognitiboak, menpeko aldagaiaren moduan, likert eskalaren bitartez deskribatzen dira inkestan. Baieztapenak epaitzeko, aldagai bakoitzak 7 mailako eskala erabiltzen du, “ez dakit” eta “ez dut erantzuten” aukeraz aparte. Beraz, likert eskala bakoitzarekin indize bat sortuko dugu..

- 2.1 Asmoa aurrera eramatearekiko jarrera: likert eskala honek 12 baieztapen biltzen ditu, ordea, indizea kalkulatzeko bakarrik lehenengo 6 baieztapenak erabiltzen dira.
- 2.2 Arau subjektiboak: kasu honetan, eskalan 6 baieztapen erabiltzen dira, eta indizea osatzeko baita 6ak erabiliko dira.
- 2.3 Portaerarekiko antzemandako kontrola: aurrekoaren bidetik, eskalak 4 baieztapenak erabili ditu.

- Azter ditzagun orain ea analisi faktorialaren bitartez eskala likert bakoitza faktore bakar betean biltzea posible den:

Asmoa aurrera eramatearekiko jarreraren faktoreak jatorrizko datuen bariantzaren %70.3-a biltzen du, portzentaje nahikoa ontzat hartzeko. Gainera faktore honek datuekin duen korrelazio guztiak 0.65 eta 0.9 balioen artean aurkitzen dira.

Bide bidetik, arau subjektiboaren eskala faktore bakar batean bildu daiteke baita ere, eta honek jatorriko datuen %73.5-a azaltzen du. Bestalde, datuekiko korrelazioak aski altuak dira, 0.8-tik gorakoak hain zuzen.

Eta portaerarekiko antzemandako kontrolaren eskala biltzen duen faktorea ez da atzean geratzen, datuen %74.3-a azalduz. Gainera faktorearen korrelaziorik baxuena 0.82 balioa dauka.

- Ikus dezagun Cronbach Alfa bitartez indizeak duen barne sendotasuna eta baliagarritasuna.

### **5.TAULA: Alpha de Cronbach baloreak**

	Alfa de Cronbach	N
Ekintzaletasun jarrera	,914	6
Portaerarekiko kontrola	,927	6
Arau subjektiboak	,927	6

Hiru indizeak antzeko balorea daukate, 0.9-tik gorakoa. Honek esan nahi du indizeen barne sendotasuna eta baliagarritasuna oso altua dela.

#### 3. Aldagai psikologikok

Multzo honetako aldagai gehienak aurretik erabilitako galderetan biltzen dira, “arriskuarekiko joera” eta “anbiguotasunarekiko onarpena” aldagaiak izan ezik. Bi aldagai hauek duten antzekotasuna kontuan hartuz eta banandurik aztertzekeo galdera nahiko aurkitu ez izateak, biak elkarrekin aztertzeraz eraman gaitu.

3.1 Arriskuarekiko joera eta anbiguotasunarekiko onarpena: galdera itxia, aukera bakarreak eta dikotomikoa. Non 0 balioak arriskuarekiko joera edota anbiguotasunarekiko onarpena adierazten duen eta 1 balioak kontrakoa.

Gainontzeko aldagaiak ez ditugu aztertuko, izan ere inkestak ez digu informazio nahiko ematen horretarako.

#### 4. Baloreak

Baloreen kasuan baita zailtasunak izan ditugu aldagai hau inkestan modu egokian deskribatuta aurkitzeko, beraz, baliagarria ez den ikerketa bat egin baino, alboratzea komeni zaigu.

## **4. ANALISI ESTADISTIKOAK**

Behin aldagaiak deskribatu ditugula, pasa gaituz analisiak egitera.

### 4.1 KORRELAZIOAK

Lehenik eta behin analisi bibariantea egingo dugu. Aztertuko dugu zein diren binaka aldagaien arteko korrelazioak.

Korrelazioak aztertzekeo, ikusiko dugu zein den bere ikurra, balioa eta adierazgarritasuna.

- Balore positibo batek esan nahi du bi aldagaien arteko erlazioa positiboa dela, eta beraz, batek gora egiteak bestea baita proportzio batean gora egitea suposatzen du. Aldiz, korrelazio negatibo batek bi aldagaien arteko erlazio negatiboa eragiten du, orduan aldagai independenteak behera egiteak menpeko aldagaien gorakada suposatzen du.
- Baina ikurra ez du garrantzirik bere balioa oso txikia baldin bada. Azken finean, antzekoa da zerotik hurbil dagoen balio baten ikurra positiboa edo negatiboa izatea.
- Azkenik, funtsezkoa da korrelazioa adierazgarria izatea. Korrelazioa ez bada adierazgarria, alferrikakoa da bere ikurra eta balioa kontuan hartzea.

Azter ditzagun orain banan banako korrelazio hauek eta ea bat datozen ikerketa hasieran azaldutakoarekin:

**6.TAULA: Aldagaien bataz besteko eta estandar desbideratzea**

	Bataz bestekoa	Estandar desbideratzea
1. Ekintz. Asmoa indizea	4,0490	1,59463
2. Familian kide ekintzaileak izatea	,6130	,72643
3. Ikasketa mota	0,48	0,501
4. Ikasketa maila	,47	,500
5. Laguntza prog parte hartzea	,34	,476
6. Esperientzia	,53	,500
7. Sexua	,63	,484
8. Familiaren errenta	3,06	,678
9. Jarrera indizea	4,8180	1,43704
10. Portaera kontrola indizea	2,8261	1,27740
11. Arau subjektiboak indizea	5,6160	1,16936
12. Arriskuarekiko joera	,50	,501

**7.TAULA: Aldagaien banakako korrelazioak**

	1. Ekintz. Asmoa		2. Familian kide ekintzaileak izatea		3. Ikasketa mota		4. Ikasketa maila		5. Laguntza programetan parte hartzea		6. Esperientzia	
1	1,000											
2	,147	**	1,000									
3	-,001		-,114	*	1,000							
4	,117	*	-,056		-,003		1,000					
5	,134	*	-,022		-,077	+	,025		1,000			
6	-,037		-,077	+	-,046		-,205	***	,107	*	1,000	
7	-,219	***	,074		-,290	***	,055		-,144	**	-,102	*
8	,062		-,112	*	,060		-,081	+	,033		-,071	
9	,760	***	,155	**	,056		,183	***	,076	+	-,103	*
10	,568	***	,050		,043		-,012		,237	***	,121	*
11	,201	***	,082	+	-,076	+	,069		-,003		,018	
12	-,106	*	,017		,071		,053		-,054		-,035	

### 8.TAULA: Aldagaien banako korrelazioak (jarraipena)

	7. Sexua		8. Familiaren errenta		9. Jarrera indizea		10. Portaera. Kontrola indizea		11. Arau subjektiboak indizea		12. Arriskuarekiko joera
1											
2											
3											
4											
5											
6											
7	1,000										
8	-,059		1,000								
9	-,158	**	,135	**	1,000						
10	-,198	***	,097	*	,366	***	1,000				
11	,069		,103	*	,244	***	,117	*	1,000		
12	,081	+	-,158	**	-,094	+	-,088	+	-,157	**	1,000

p<,1 = +	p<,05 = *	p<,01 = **	p<,001 = ***
----------	-----------	------------	--------------

Aurreko tauletan ikus dezakegu deskribatutako hiru faktoreak: ikurra, balorea eta adierazgarritasuna. Aldagai bakoitzaren korrelazioaren adierazgarritasun maila izartxoekin azaltzen da, hiru izarrak adierazgarritasun mailarik altuenari egokituz eta + ikurrak adierazgarritasunik txikienari. Ordea, izarrak ez izatea, gure jakin-minetik kanpo utziko luke aldagaia. Has gaitez orduan korrelazioak deskribatuz, adierazgarritasun handienetik txikienera.

Adierazgarritasuna: \*\*\*

Sexua da aldagaiarik adierazgarrienetako bat eta balore negatiboa izateak esan nahi du gizona izanda emakume izanda baino errazagoa dela ekintzaile asmoak izateko. Izan ere, sexu aldagaiaren kodifikazioak 0 balorea ematen du gizonetzkoentzat, eta 1 balorea emakumezkoentzat. Beraz 0 balorera hurbildu ahala, ekintzaletasun asmoak handitzen dira. Baieztapen hau bat dator ere aurretik bildutako ikerketekin. Badirudi oraindik sexu ezberdintasunak nabariak direla eguneroko bizitzan eta horrezkero emakumeek gizonetzkoek baino ekintzaletasun asmo baxuagoa dute.

Aldagai kognitiboen kasuan, guztiak dute adierazgarritasunik altuena.

Datuetan ikus daiteke ekintzaletasunaren inguruan balorapen positibo bat izateak lagunduko duela ekintzaletasun asmoa pizten. Hau da, jarrera on batek ekintzaletasun asmoa bultzatzen duen heinean, jarrera txarrak oztopatu egiten du.

Bigarren aldagai kognitiboak baita ere korrelazio positiboa dauka, beraz, portaera aurrera eramateko erraztasunak izango dituenaren pertzepzioa izateak ekintzaletasun asmoa

sendotuko lukeen. Bestalde, portaera aurrera eramateko zailtasunak izango dituenaren pertzepzioak, ez luke ekintzaletasun asmoa hobetzen lagunduko.

Aldagai kognitiboekin bukatzeko, azter ditzagun arau subjektiboak. Honek adierazten du ingurugiro sozialak duen onarpena edo gaitzespena. Korrelazioa positiboa izateak esan nahi du, ingurugiro sozialak, egin behar duzun ekintza onartzen badu errazagoa izango dela ekintzaile izateko grina azaltzea.

Hiru baieztapen hauek bat datoz Azjenek proposatutako teoriarekin.

Adierazgarritasuna: \*\*

Beste adierazgarritasun maila batekin ikus dezakegu familian kide ekintzaile bat izateak korrelazio positiboa daukala ekintzaile izateko asmoarekin. Onak esan nahi du familian kide ekintzailearen bat izateak ekintzaile izateko asmoa bultzatzen duela.

Adierazgarritasuna: \*

Hirugarren mailako adierazgarritasunarekin, baina oraindik nahiko adierazgarriak, hurrengo aldagai hauek aurki ditzazkegu: ikasketa maila, laguntza programetan parte hartzea eta arriskuarekiko joera.

Ikasketa mailaren kasuan korrelazio positiboak adierazten du 2.mailako ikasleetan errazago izango dela ekintzaile izateko grina azaltzea, 4.mailako ikasleetan baino.

Laguntza programetan parte hartzeak baita ere ekintzaletasun asmoa sendotzea eragiten du.

Azkenik, arriskuarekiko joeraren balore negatiboa daukagu. Aldagai honetan neurtzen dena da arriskua ekintzaile izateko traba bat den ala ez. Balore negatiboak esan nahi du, arriskua traba bat ez den ikasleentzat ekintzaletasun asmoa handiagoa izaten laguntzen duela. Zentzuduna da hori esatea, izan ere bat dator Banduraren auto-eraginkortasun ideiarekin eta aurretik esan bezala, erlazio zuzena dago bi aldagai hauen artean.

Gainontzeko aldagaiak, ikasketa mota, lan esperientzia izatea edota familiaren errenta, hain zuzen, ez dira batere adierazgarriak, beraz ez dute eragin nabarmenik ekintzaile izateko asmoekin eta printzipioz ezin dugu haien inguruko ondorioz atera. Beharbada hurrengo analisisietan adierazgarritasuna lortzen dute.

## 4.2 ERREGRESIO LINEALA

Badakigu jada zein diren aldagaien arteko erlazioak, eta zehaztu dugu zein diren erlazioz esanguratsuenak. Baina erlazio hauek aldagai independenteek menpeko aldagaiarekin duten banakako erlazioak dira, gainontzekoak kontuan hartu gabe. Orain ordea ikusiko dugu zein den menpeko aldagaiaren jarrera (ekintzaletasuna asmoa) aldagai independente guztiak elkarrekin kontuan hartuz.

Erregresio hauek multzoka egingo ditugu. Alde batetik, aldagai sozioekonomikoak bilduko dituen erregresio lineala, beste aldetik, aldagai kognitiboak bilduko dituen erregresioa, eta azkenik, aldagai guztiak batera bilduko dituen. Hurrengo taulan laburbilduta aurkitzen dira esan berri ditugun erregresio guztien emaitzak.

## 9.TAULA: Erregresio lineala

	Beta	S.D.	Sig.	Beta	S.D.	Sig.	Beta	S.D.	Sig.
1. konstantea	3,491	,507	***	-,632	,287	*	,170	,404	
2. Familian kide ekintzaileak izatea	,411	,121	***				,049	,076	
3. Ikasketa mota	-,173	,184					-,218	,113	+
4. Ikasketa maila	,476	,179	**				,005	,112	
5. Laguntza programetan parte hartzea	,330	,188	+				-,016	,116	
6. Esperientzia	-,046	,181					-,083	,111	
7. Sexua	-,781	,193	***				-,271	,120	*
8. Familiaren errenta	,181	,130					-,137	,081	+
9. Jarrera indizea				,700	,040	***	,696	,043	***
10. Portaera kontrola indizea				,423	,044	***	,413	,047	***
11. Arau subjektiboak indizea				,021	,046		,016	,048	
12. Arriskuarekiko joera							-,048	,109	
R <sup>2</sup> zehaztua	0,120		***	0,673		***	0,675		***

### 4.2.1 Aldagai sozioekonomikoen erregresio lineala

Honek adierazten du zein den asmoaren jarrera aldagai sozioekonomikoen aldaketaren aurrean. Hala ere, aldagai batzuk ekartzen duten informazioa ez da adierazgarria. Gauzak horrela, gure arreta bakarrik adierazgarriak diren aldagaietan jarriko dugu.

Familian kide ekintzailearen bat izateak osa adierazgarritan maila altua dauka. Bat dator banakako korrelazioak esaten duenarekin, hau da, guraso ekintzaileak dituzten pertsonetan errazago azalduko da ekintzaile izateko grina. Dena den, deigarria da banakako korrelazioak baino balia garrantzitasun maila handiagoa izatea.

Adierazgarritasun berberarekin sexua aurki dezakegu. Kasu honetan aldagaiaren ikurra negatiboa da, baina zentzuduna da, izan ere, kodifikazioak 0 balioa ematen du gizonezkoentzat eta 1 balioa emakumeentzat. Orduan, ikurra adierazten du gizonezkoa izanda errazago dela ekintzaletasun asmoak nabarmentzeko.

Ikasketa maila baita ere nahiko adierazgarria da. Ikurra positiboa denez, ondorioztatzen dugu bigarren mailako ikasleek laugarren mailako ikasleek baino ekintzaile asmo altuagoak dituztela, hain zuzen ere kodifikazioak 1 balorea bigarren kurtsokoei ematen dielako eta 0 balorea laugarrenekoei. Baliteke laugarren mailako ikasleek lan egiteko garaia horren hurbil ikusteak beldurra sorrarazten diela eta horrezkero ekintzaletasun asmoa jaitea. Ordea, bigarren mailako ikasleek beren etorkizuna urrun ikusita ez du ekintzaile izateko beldurrik.

Laguntza programetan parte hartzearen aldagaiak zertxobait jaitsi du bere adierazgarritasuna banakako korrelaziotan zuenarekin konparatuz. Baliteke honen arrazoia izatea bere informazioa beste aldagaietan bildu izana. Nolanahi ere, aldagaiak adierazten du laguntza programetan parte hartzea positiboa dela pertsona baten ekintzaletasun asmoa bultzatzeko.

R<sup>2</sup> zehaztuaren balioa 0.120koa da. Beraz, ereduak azaltzen du ekintzaletasun asmoaren aldakortasunaren %12. Portzentajea oso adierazgarria da, baina ez da oso altua, baizik eta



asmoaren aldakortasunaren %88 azaldu gabe geratzen da eta ondorioz ekintzaletasun asmoaren informazio asko bildu gabe geratzen da.

#### **4.2.2 Aldagai kognitiboen erregresio lineala**

Lehen ikusi dugu menpeko aldagaiak aldagai kognitibo guztiekiko duen korrelazioa oso altua dela. Baina hiru aldagaiak erregresio lineal batean biltzen ditugunean arau subjektiboak indarra galtzen du, ordea, beste biak adierazgarritasuna mantentzen dute.

Beraz, oraingoz mantentzen da ekintzaletasun jarreraren inguruan egindako baieztapena, hau da, pertsona batek balorapen positiboa izateak lagunduko du enpresa bat sortzeko asmoa handiagoa izatera.

Ildo beretik doa portaerarekiko antzemandako kontrola. Pertsona batek uste badu erraztasunak izango dituela bere jarduerak aurrera eramateko eta gauzak bere nahi duen bezala ateratzeko, ekintzaile izateko asmoak nabarmen garatuko ditu. Baina zailtasunak izango dituenaren pertzepzioak izatea ez du ekintzaletasun asmoak izaten lagunduko.

Oraingoa arau subjektiboak indarra galdu du eta ezin dugu inolako baieztapenik egin. Baliteke aldagai honek jasotako informazio gehiena beste bi aldagaietan bilduta egotea eta horren ondorioz bere adierazgarritasuna guztiz jausi egin da.

Aldagai kognitiboen kasuan,  $R^2$  zehaztuaren balio aldagai sozioekonomikoen kasuan baino nabarmen altuagoa da. 0.673-ko balio batek esan nahi du, ekintzaletasun asmoaren aldakortasunaren %67.3-a ereduak azaltzen duela. Orain bai, portzentajea adierazgarria eta esanguratsua da.

#### **4.2.3 Aldagai guztien erregresio lineala**

Azken erregresio honetan ikus dezakegu nola gailentzen diren aldagai kognitiboak aldagai sozioekonomikoen aurrean.

Lehenengo erregresioan ikus genezake familian kide ekintzaileak izatearen, sexuaren, ikasketa mailaren edota laguntza programetan parte hartzearen garrantzia, baina hauek aldagai kognitiboekin elkartzean, nagusitasuna galtzen dute. Ordea bigarren erregresioan ekintzaletasunarekiko jarrera eta portaerarekiko antzemandako kontrolak trinko mantendu dute beren garrantzia.

Beraz azken analisi honen inguruan esan dezakegu ekintzaletasun asmoan eragin altuena duten aldagaiak, ekintzaletasun jarrera eta portaerarekiko kontrola direla. Biek eragin positiboa dute eta baten gorakadak ekintzaletasun asmoa izateko erraztasuna suposatzen du.

Familian kide ekintzaileak izateak eta ikasketa mailak zuten adierazgarritasuna guztiz desagertu egin da, eta sexua, nahiz eta adierazgarria izaten jarraitzen duen, baita era beherakada nabaria izan du.

Ordea, deigarria da beste aldagai batzuen jarrera. Ikasketa mota eta familiaren errenta hasierako analisisan ez dute inolako adierazgarritasunik izan, baina azken analisisan zertxobait gora egin dute.

Ikasketako motari dagokionez, betaren ikurra negatiboa da. Kontuan izanda SPSS-ren kodifikazioak 0 balioa ematen diola gizarte zientziei eta 1 balioa zientziei, ondorioztatzen dugu gizarte zientziarekin erlazionatutako karrerak jorratzen dituzten ikasleek, ingeniari-tza

ikasten dutenak baino ekintzaletasun asmo altuago daukatela. Emaidza hau ez dator bat aurretik ikusitako ikerketekin, izan ere, ingeniari-tza eta arkitektura ikasleak ziren ekintzaletasun asmo altuena zutenak. Aldagai hau etorkizunean gehiago aztertu beharko genuke.

Datuetan ikus daitekeen beste emaitza interesgarri bat familiaren errenta ematen duena da. Kasu honetan, errenta baxuko familiak dituzten ikasleek ekintzaletasun asmo altuagoa izan ohi dute. Beharbada interesgarria izango zen analisi bera errepikatzea lagin ezberdin edota handiago batzuekin, emaitzak errepikatzen diren ikusteko.

Azkenik, ikertutako aldagai psikologiko bakarraren ezin dugu gauza handirik esan. Ikus negatiboa dauka, baina ez du pena merezi ekintzaletasunaren inguruan duen eragina, izan ere, ez du inolako adierazgarritasunik.

Erregresio honen  $R^2$  zehaztua 0.675 da. Beraz, ereduak azaltzen du ekintzaletasun asmoaren aldakortasunaren %67.5. Balio altua eta adierazgarria.

## 5. ONDORIOAK

Ekintzaile izateko grina pizten duten aldagaiak topatzea eta hauek NUP-n duten jarrera aztertzea izan da ikerketa honen helburua.

Horretarako, azken urteetan egin diren ikerketa multzo baten laguntzaz, aztertu dugu zein diren ekintzaletasunean eragin handiena duten aldagaiak. Hauen artean aldagai sozioekonomikoak, kognitiboak, psikologikoak eta baloreak nabarmentzen dira, baina informazio eza dela eta, aldagai sozioekonomiko eta kognitiboetan jarri dugu arreta nagusia.

Aldagai hauek NUP-n duten eragina ikusteko, 312 ikasleei egindako inkesta baten emaitzak erabili ditugu. Behin aukeratu ditugula aztertu behar genituen aldagaiak deskribatzen zituzten galderak, SPSS programaren laguntzaz bi analisisitan laburbildu dugu ikerketa: korrelazioen analisisia eta erregresio linealaren analisisia.

Korrelazioen analisiarekin ikusi dugu zein diren ekintzaletasun asmoarekin erlazio sendoen mantentzen duten aldagaiak. Haien artean, aldagai kognitibo guztiak aurkitu ditugu, baina baita ere aldagai sozioekonomikoren bat, ala nola, sexua, familian kide ekintzaileak izatea, ikasketa maila edota laguntza programetan parte hartzea.

Sexuaren eta ekintzaletasun asmoen arteko erlazioa oso adierazgarria da, eta azaltzen digu gizonek emakumeek baino ekintzailetan asmo altuagoa izan ohi dutela. Aurreko ikerketak bat datozen emaitza honekin eta kezkarria litzateke gizartearen antolaketaren ondorioa izatea.

Deigarria da, ikasketa mailak ekintzaletasunarekin duen erlazioa, izan ere, hasieran espero gaudenaren kontra, 2.mailako ikasleek 4.mailako ikasleek baino ekintzaletasun asmo altuagoa dute. Arrazoia izan daiteke 4.mailako ikasleek etorkizuna hurbilago izanda, beldurra izatea, eta egonkorra den postu bat nahigo izatea.

Baina erregresio linealarekin ikusi dugu zein izan diren gailendu diren aldagaiak eta beraz, NUP-en ekintzaletasun asmoa eragin handiena dutenak.

Aldagai kognitiboen artean, arau subjektiboak indarra galdu du, baina beste bi aldagaiak (ekintzaletasun jarrera eta portaerarekiko kontrola) eragin gehien duten aldagaiak bezala nabarmendu dira. Beraz, pertsona batek ekintzaletasun grina izateko, ezinbesteko du ekintzaletasunaren inguruan balorapen positibo bat izatea eta portaera aurrera eramateko erraztasunak izango dituenaren pertzepzioa izatea.

Baina aldagai sozioekonomikoak zer esaterik badute. Hasiera batean zirudien familian kide ekintzaileak izatea garrantzizko ezaugarria zela, baina azken analisian adierazgarritasuna galdu du. Zentzuzkoa izan daiteke, izan ere, arau subjektiboen bide beretik joan da, eta nabaria da bien artean dagoen erlazio.

Bestalde, aurretik esan bezala, errazagoa da ekintzaile grina izatea, gizona izanda emakumea izanda baino. Eta baita ere, gizarte zientzien ikaslea izanda, ingeniaria edota arkitektura ikaslea izanda baino, azken baieztapen hau aurretik ikusitako ikerketen aurka doan arren.

## 6. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

### 6.1 BIBLIOGRAFIA

- **Arribas, I. y Vila, J. (2010).** *La actitud emprendedora del universitario valenciano.* Capítulo 12, 201-274.
- **Azanza, G. y Campos, J.A. (2014).** *La intención emprendedora en estudiantes universitarios: el caso de la Universidad de Deusto.* Boletín de estudios económicos Vol. 69 - N.º 211, 151-172.
- **Bandura, A. (2001).** *Guía para la construcción de escalas de autoeficacia.* Universidad de Stanford
- **Bolaños, R. (2006).** *Impacto del Modelo a imitar en la intención de crear una empresa.* Estudios de Economía Aplicada, vol. 24, - N.º 2, 491-508
- **Díaz de León, D. y Christian, C. (2014).** De emprendimientos por necesidad a emprendimientos por oportunidad: casos rurales exitosos. Universidad de Chile.
- **Durán-Aponte, E. y Arias-Gómez, D. (2015).** *Intención emprendedora en estudiantes universitarios: integración de factores cognitivos y socio-personales.* Revista Colombiana de Ciencias Sociales, vol. 6 - N.º 2, 320-340
- **Entrialgo, M.; Fernández, E. & Vázquez, C. (2000).** Characteristics of Managers as Determinants of Entrepreneurial Orientation: Some Spanish Evidence, Enterprise and Innovation. Management Studies, vol. 1- N.º 2, 187-205
- **Espíritu, R. (2011).** Análisis de la intención emprendedora en estudiantes universitarios a través de los rasgos de personalidad Multiciencias. vol. 11, - N.º 1, 65-75
- **Hassan, R. eta Wafa, S. (2012).** *Predictors towards entrepreneurial intention: a malaysian case study.* Asian Journal of Business and Management Sciences, vol. 1 - N.º 11, 1-10.
- **Moriano, J. A.; Topa, G.; Molero, F.; Entenza, A. M. y Lévy-Mangin, J.P. (2012).** *Autoeficacia para el Liderazgo Emprendedor.* Adaptación y Validación de la Escala CESE en España Anales de Psicología, vol. 28, - N.º 1, 171-179.
- **Moriano, J.A., Trejo, E. y Palací, F. (2001).** *El perfil psicosocial del emprendedor: un estudio desde la perspectiva de los valores.* Revista de Psicología Social, vol 16 - N.º 2, 229-242.
- **Moriano, J.A.; Palací, F.J. y Morales, J.F. (2006).** *El perfil psicosocial del emprendedor universitario.* Revista de Psicología del Trabajo y de las Organizaciones, vol. 22, - N.º 1, 75-99.
- **Quevedo, L.M.; Izar, J.M. y Romo, L. (2010).** *Factores endógenos y exógenos de mujeres y hombres emprendedores de España, Estados Unidos y México.* Universidad autónoma de Aguascalientes. Investigación y Ciencia. - N.º 46, 57-63.
- **Robbins, P. y Judge, A. (2009).** *Comportamiento organizacional.* Naucalpan de Juárez, México: Pearson Education.
- **Rodríguez, A. y Navarro, J.R. (2015).** *Intenciones emprendedoras y de elección de carrera de los alumnos de la Universidad de Cádiz.* Recuperado de: [http://www.uca.es/recursos/doc/Unidades/Catedra\\_Emprendedores/992066813\\_2652015133858.pdf](http://www.uca.es/recursos/doc/Unidades/Catedra_Emprendedores/992066813_2652015133858.pdf).
- **Rodríguez, C.A. y Prieto Pinto, F.A. (2009).** La sensibilidad al emprendimiento en los estudiantes universitarios. Estudio comparativo Colombia-Francia. Innovar, Especial en Educación, 73-90.

- **Sánchez García, J.C. (2010).** Evaluación de la Personalidad Emprendedora: Validez Factorial del Cuestionario de Orientación Emprendedora (COE). Revista Latinoamericana de Psicología, vol. 42, - N.º 1, 41-52.
- **Sánchez, J.C.; Lanero, A. y Yurrebaso, A. (2005).** *Variables determinantes de la intención emprendedora en el contexto universitario.* Revista de Psicología Social Aplicada Vol. 15, nº 1, 26-34.
- **Schumpeter, J.A. 1934 (2008).** *The Theory of Economic Development: An Inquiry into Profits, Capital, Credit, Interest and the Business Cycle.* translated from the German by Redvers Opie, New Brunswick (U.S.A) and London (U.K.): Transaction Publishers.
- **Shane, S. & Venkataraman, S. (2000).** *The promise of entrepreneurship as a field of research.* Academy of Management review 2000. Vol.25, No. 1,217-226
- **Wu, S. & Wu, L. (2008).** *The impact of higher education on entrepreneurial intentions of university students in China.* Journal os Small Bisusiness and Enterprise Development, vol. 15 - N.º 4, 1-20.
- **Korunka, C.; Frank, H.; Lueger, M. eta Mugler, J. (2013).** *The Entrepreneurial Personality in the Context of Resources, And the Startup Process – A Configurational Approach.* Baylor University, 1-20.
- **Mueller, S. eta Thomas, A. (2001).** *Culture and Entrepreneurial Potential: A Nine Country Study of Locus of Control and Innovativeness.* Journal of Business Venturing, vol. 16 - N.º 1, 151-75.
- **Sagie, A. eta Elizur, D. (1999).** *Achievement Motive and Entrepreneurial Orientation: A Structural Analysis.* Journal of Organizational Behavior, vol. 20 - N.º 3, 375 - 387

#### **Taulak eta irudiak:**

##### **1.Taula: Ekintzaletasuna ezaugarrien arabera.**

(Diaz de Leon, D. eta Cristian, C. 2014)

<http://www.cid.uchile.cl/wp/WP-2014-02.pdf>

##### **2.Taula: Ekintzaile izateko asmoa urteen arabera**

(Ramos, A. eta Navarro, J.R. 2015)

## 6.2 WEBGRAFIA

### Ekintzaletasun motak

<http://blog.enlacepymes.com/emprendedores-por-necesidad-o-por-oportunidad/>

### Ekintzaletasunaren helburuak

[http://vivesproyecto.org/upload/10/59/U.D.1\\_La\\_persona\\_emprendedora.pdf](http://vivesproyecto.org/upload/10/59/U.D.1_La_persona_emprendedora.pdf)

<http://www.gestiopolis.com/objetivo-emprendedor-ser-empresario/>

### Ekintzaletasuna soziala

[http://www.iese.edu/es/files/Cuaderno%2013\\_tcm5-75666.pdf](http://www.iese.edu/es/files/Cuaderno%2013_tcm5-75666.pdf)

<file:///C:/Users/USER/Downloads/gem-2015-special-report-on-social-entrepreneurship-1464768244.pdf>

Azanza, G. y Campos, J.A. (2014).

<http://www.bizkailab.deusto.es/wp-content/uploads/2014/06/Campos-AZANZA.pdf>

Arribas, I. y Vila, J. (2010).

<http://www.uv.es/motiva/libromotiva/12ArribasVila.pdf>

Bandura, A. (2001).

<http://www.uky.edu>

[/~eushe2/Pajares/effguideSpanish.html](http://www.uky.edu/~eushe2/Pajares/effguideSpanish.html)

Bolaños, R. (2006).

<file:///C:/Users/USER/Downloads/Impacto%20del%20Modelo%20a%20imitar%20en%20la%20Intenci%C3%B3n%20de%20Crear%20una%20Empresa.pdf>

Durán-Aponte, E. y Arias-Gómez, D. (2015).

<file:///C:/Users/USER/Downloads/Dialnet-IntencionEmprendedoraEnEstudiantesUniversitarios-5212099.pdf>

Entrialgo, M.; Fernández, E. & Vázquez, C. (2000).

<http://www.tandfonline.com/doi/pdf/10.1080/14632440050119596?needAccess=true>

Espíritu, R. (2011).

<http://www.redalyc.org/pdf/904/90418851009.pdf>

Quevedo, L.M.; Izar, J.M. y Romo, L. (2010).

<http://www.uaa.mx/investigacion/revista/archivo/revista46/Articulo%207.pdf>

Loli P., Dextre J., Del Carpio G., y La Jara G. (2010) – Tabla

[http://sisbib.unmsm.edu.pe/bvrevistas/investigacion\\_psicologia/v13\\_n2/pdf/a09v13n2.pdf](http://sisbib.unmsm.edu.pe/bvrevistas/investigacion_psicologia/v13_n2/pdf/a09v13n2.pdf)

Moriano, J.A.; Palací, F.J. y Morales, J.F. (2006).

<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=231317045004>

Moriano, J.A., Trejo, E. y Palací, F. (2001).

[http://www2.uned.es/dpto-psicologia-social-y-organizaciones/paginas/profesores/moriano/copiaseguridad/J.A.Moriano\\_archivos/16\\_2%5B1%5D.%20MORIANO%20ET%20AL.pdf](http://www2.uned.es/dpto-psicologia-social-y-organizaciones/paginas/profesores/moriano/copiaseguridad/J.A.Moriano_archivos/16_2%5B1%5D.%20MORIANO%20ET%20AL.pdf)

Moriano, J. A.; Topa, G.; Molero, F.; Entenza, A. M. y Lévy-Mangin, J.P. (2012).

<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=16723161019>

Robbins, P. y Judge, A. (2009).

<https://psiqueunah.files.wordpress.com/2014/09/comportamiento-organizacional-13a-ed- nodrm.pdf>

Rodríguez, C.A. y Prieto Pinto, F.A. (2009).

<http://www.scielo.org.co/pdf/inno/v19s1/19s1a07.pdf>

Sánchez García, J.C. (2010).

<http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=80515880004>

Sánchez, J.C.; Lanero, A. y Yurrebaso, A. (2005).

<http://psi.usal.es/emprendedores/documentos/Sanchez05.pdf>

Schumpeter, J.A. 1934 (2008).

<http://compaso.eu/wp/wp-content/uploads/2013/01/Compasso2012-32-Croitoru.pdf>

Shane, S. & Venkataraman, S. (2000).

<http://entrepreneurscommunicate.pbworks.com/f/Shane%2520%252B%2520Venkat%2520-%2520Ent%2520as%2520field.pdf>